

# Erbia eta trikuak

**B**ehin batean triku jauna bere zulotik atera zen paseatzera. Belardi batean erbia aurkitu zuen, hau ere bere lurpeko zulotik atera berria. Trikuak begirune handiz agurtu zuen: *"Egunon erbi jauna"* baina erbiak zakar baino zakarrago erantzun zion:

- *"Zer egiten duzu hemen hain goiz?"*
- *"Hementxe, paseatzen".*
- *"Paseatzen? Hobe duzu hankatxo barregarriok ez nekatzea".*
- *"Zer uste duzu, zure hankak nireak baino hobeak direla?"*,
- *"Jakina! Lurrazalean eta baita lurpeko zuloetan zehar ere"*
- *"Ni enago hain ziur. Egingo dugu lasterketa bat? Belardi hau alderik alde zuk baino lehenago zeharkatu baietz!"*
- *"Nahi duzunean"*
- *"Etxera joan behar dut gosaltzera. Ordu erdi barru bertan".*
- *"Ados. Azenario sorta bat irabazlearentzat".*

Trikua etxera joan zen. Emazteari apustuaren berri eman eta belardira joan ziren biak.

- *"Begira, erbia zulo batetik joango da eta ni beste batetik. Belardiaren beste aldetik aterako gara bai, eta zu egon han ezkutatuta. Erbia hurbiltzen denean hau esan: "Zu baino arinago iritsi naiz".*

Lasterketa hasi eta erbia zitzu bizian abiatu zen. Trikua, ordea, etzan egin zen zulo barruan. Erbia belardiaren beste aldera iritsi zenean trikuaren emaztea aurkitu zuen.

- *"Zu baino arinago iritsi naiz",* esan zion triku andreak.
- *"Nola liteke?"* Erbiak etzuen ezer ulertzen. *"Egin dezagun beste lasterketa bat. Oraingoan bestaldera".*

Erbia tximistaren pare abiatu zen berriro ere, baina bestaldean nor aurkituko eta trikua: "*Zu baino arinago iritsi naiz*"

- "*Nola....? Egin dezagun beste bat.*"

Hirurogeita hiru joan-etorri egin zuten arineketan. Hirurogeita laugarrenean erbia hankaz gora geratu zen. Trikuak erbia bertan behera utzi eta etxera aldegin zuten.

Hurrengo egunean azenario sorta eder bat aurkitu zuten atarian.

Tira, bere hitza bete zuen behinik behin erbi harroak.

